BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2999

EBAZPENA, 2012ko maiatzaren 16koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena; honen bidez jakinarazten da herritarren eskura jarri dela 2011n NBEUF funtsen kontura esleitu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen bitartez ordaindutako laguntzen informazioa.

Administrazioaren diru-laguntzen jardueran nagusi izan behar duen publikotasun-printzipioa betetzeari begira, eta kontuan hartuta 2011. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak onuradun askori ordaindu dizkiela NBBEFaren kontura finantzaturiko diru-laguntzak eta banan-banan jakinarazi, ebazpen honen bidez jakinarazten da jendaurrean jarri direla diru-laguntza horien inguruko datuak.

Kontuan izan behar da, halaber, Europar Batasuneko Auzitegiaren 2010eko azaroaren 9ko epaiak baliogabetzat jo dituela erkidegoko araudiko aginduak, NBEUF funtsen onuradun diren pertsona fisikoen gaineko informazioa argitaratzeari dagokionez. Hori dela eta, argitaratuko diren datuak pertsona juridikoenak bakarrik izango dira.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2011n NBEUF funtsen kontura esleitu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen bitartez ordaindutako laguntzen onuradunen datuak interneteko www.euskadi.net helbidean jendaurrean jarri direla jakinaraztea (Eusko Jaurlaritzaren sailak / Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila / Nekazaritza eta Arrantza / Nekazaritza eta Abeltzaintza / Erakunde Ordaintzailearen Ordainketak).

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 16a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
MARÍA PILAR SANTAMARÍA MARTÍNEZ.